

2022ko uztailearen 22an

Artium Museoa
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Vitoria-Gasteiz • Araba
www.artium.eus

Edurne Rubio
Clamor
Z aretoa



Clamor (2022) pelikularen fotograma. Edurne Rubio

Z aretoan, 2022ko uztailearen 22tik irailaren 18ra

Argitalpena, Andrea Cinelen testuarekin

Z aretoko gaur egungo zikloak Garbiñe Ortega du komisario

Mondragonekin lankidetzan ekoizitako proiektua

Argibide gehiago: www.artium.eus

ARTIUM MUSEOAK EDURNE RUBIOREN GLAMOR ERAKUSKETA AURKEZTU DU, Z ARETOAREN PROGRAMAREN BARRUAN

Clamor, Rubioren azken filma, heriotzari buruzko lana da, eta «baztertuen» ehorzlekuak ditu abiapuntu: suizidenak, errepresaliatuenak, ateoena...

Edurne Rubio artista bisualaren jarduerak barne hartzen ditu performanceak, filmak, soinu-proiektu eta espazio publikoko eskuhartzeak

Erakusketarako orobat bildu dira filmean agertzen diren zenbait tokirekin loturiko artxiboko irudiak eta testuak

Artium Museoak, Arte Garaikideko Euskal Herriko Museoak **Edurne Rubio artistaren *Clamor*** proiektua aurkeztu du (Z aretoan, 2022ko irailaren 18ra arte). Museoak artistaren azken filma proiektatuko du; lan horretan, heriotzaren gaia hartu du Rubiok ardatz, eta hiri eta herrien trama urbanotik kanpo kokatutako ehorzleketara egindako bisita abiapuntu; hilerri katolikoetatik aparteko gune horietan hartu zuten atsedeen pertsona anonimo, ateo, suizida edo errepresaliatuen hilotzek. Erakusketan ikusgai da, halaber, gune horietako batzuei buruzko argazki dokumentalen eta testuan sorta hautatu bat. *Clamor* proiektua Mondragonekin lankidetzan ekoitzia da. Programaren gaur egungo zikloak Garbiñe Ortega du komisario. Bestalde, Artium Museoak argitalpen bat plazaratu du, Andrea Cinel artekomisarioaren testua duena.

Orain dela ez askora arte, suizidak eta bataiatu aurretik hildako haurrak ez zituzten onartzen hilerri katolikoetan. Senideek, etsipenak jota, haien gorpuztako ehorzleku duina bila jardun behar izaten zuten. Haien ehorzlekuak mendia eta haizea partekatzen dituzte fusilatuekin, ateoekin, oinezkoekin, protestanteekin... Hilobi inprobisatuak dira, antzinagoko nekropolien tankera dutenak, hiririk ez zegoen garaiko hilobien tankerakoak. Kanpaiek ez zuten sekula jo «besteentzat» eta, hala ere, hilerrietik kanpo, erakundetik kanpo, paisaia bihurtzen da heriotza.

Edurne Rubioren (Burgos, 1974) *Clamor* film berriak ehorzleku horietako batzuk bisitatzen ditu artistaren sorterriko aldirietan; eremu horietan «aurkitu dute (...) atsedenekua apostatek, ernegatuak eta ahantziek». Andrea Cinelek Artium Museoko erakusketarako idatzitako testuan dioenez, «baztertuentzat eraikitako leku horiek ohoratzen dituztenen babesleku dira, ez daudenak omentzeko lekuak, haien oroitzapena eta presentzia landuz; hemen jarraitzen dutenek beren burua aurki dezaketen lekuak. (...) Leku horietan harrigarriena arkitektura-keinu txikien grazia da, tokian egindako marka geometriko eta errespetuzkoak, bere kabuz mintzo den eta denbora gainditzen duen edertasuna».

Clamor proiektuak, filmaren proiektioaz gainera, Edurne Rubiok bisitatutako tokietako batzuen zazpi argazki biltzen ditu, haietako bakoitzari buruzko kontakizun labur banarekin batera: Mozoncillo de Juarrosko protestante eta oinezkoentzako beste hilerria, Gerra Zibilaren hasieran Orbaneja del Castillon fusilatutako hiru gazteren hilobia, Rio Ubierna merindadeko Burdin Aroko nekropolia, Esteparreko hobi komuna, Villaespasako ateoena eta bataiatu gabekoen hilerria...

Edurne Rubio

Bruselan bizi den artista bisuala da. Haren praktika testuinguru eta formatu desberdinen artean mugitzen da: performanceak, filmak, soinu-proiektuak eta espazio publikoko esku-hartzeak. Edurne Rubiok ikusten dugunaren eta entzuten dugunaren artean tentsioa eragiten duten egoerak sortzen ditu, orainaren, memoriaren eta irudimenaren artean etengabe bidaiatuz. Antropologiatik gertu dagoen lan batekin, narratiba kolektiboak eraikitzen ditu istorio indibidualetatik abiatuta, eta afektuen mende dagoen eta etengabe eraldatzen ari den Historiaren irakurketa subjektiboa proposatzen du.

Haren lanak Europa osoko antzoki ugaritan aurkeztu dira, baita nazioarteko dokumental jaialdietan ere. 2021ean, São Pauloko 34. Biurtekoan erakutsi zuen bere lana, eta, María Jerez artistarekin lankidetzan, proiektu berri bat sortu zuen, Kaaitheaterren (Brusela) estreinatu zena.

Z aretoa

Z aretoa programa ez da zinema ziklo bat areto batean, ezta erakusketa bat ere. Proiektu honek tarteko espazio bat eraikitzen du, zinemaren lurraldera salto egiten duten artisten eta erakusketa-formatua aztertzen duten zinemagileen lanen inguruan hausnartzeko eta haiek ezagutarazteko. Museoa mugimenduan dagoen irudia pentsatzeko sortutako programa da, eta narrazio-forma berriak bilatzen dituzten autoreak ezagutarazten ditu, historikoki hizkuntza zinematografikoa definitu duten konbentzioak, generoak eta kategorizazioak zalantzan jarriz.

Programan parte hartu duten egileen artean Patricia Esquivias, Rosalind Nashashibi, Eric Baudelaire, Maddi Barber eta Marina Lameiro daude, baita Ainara Elgoibar, Aura Satz eta Ephraim Asili ere.

Artium Museoko erakusketak

Néstor Sanmiguel Diest. La peripecia del autómatas. 2022ko azaroaren 1era arte

Anna Daučíková. Not Belonging to and in Solidarity with. 2022ko irailaren 18ra arte

Erlea Maneros Zabala. The Voice of the Valley. 2022ko irailaren 18ra arte

Edurne Rubio. Clamor. Z aretoa. 2022ko irailaren 18ra arte

Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian. Artium Museoa Bilduma. 2023ko urtarrilaren 8 arte

Bilduma ikusgai. Artium Museoa Bilduma. 2022ko abenduaren 31ra arte